



TEMETRA BIDEZ KUDEATU DAITEZKEEN LORAWAN ETA WMBUS 868 MHz KOMUNIKAZIODUN ULTRASOINUEN KONTAGAILU ESTATIKOEN HORNIDURA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUAREN KARATULA. ESPEDIENTE-ZK.: 3260

Harmonizatuko araubidearen menpe dagoen kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Unai Lerma Mentxaka
4.- Kontratazio-ko Zuzendariordetzako harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono- zk.:94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.com www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: TEMETRA BIDEZ KUDEATU DAITEZKEEN LORAWAN ETA WMBUS 868 MHz KOMUNIKAZIODUN ULTRASOINUEN KONTAGAILU ESTATIKOEN HORNIDURA

2.- Bete beharreko premiak: BBUPk diametro handiko (50 mm-ko diametro izendatukoa edo handiagoa) ultrasoinuen kontagailu estatikoak erosi behar ditu, Lora eta Wireless M-Bus komunikazioekin, bezero handien kontsumoen ordutegi-kontrola hobetzeko. Izan ere, dauden instalazioak gaindimentsionatuta egoten dira eta Woltmann motako kontagailu tradizionalak ez dute behar den gaitasun metrologikoa eskaintzen. 500 R ratioetik gorako ultrasoinuen kontagailuek aukera ematen dute emarien tarte askoz handiagoa zehaztasunez neurtzeko, matxura gutxiago dituzte zati mekanikorik ez dutelako, eta instalazioa zenbait baldintzatan egitea errazten dute. Gainera, industriako eta zerbitzu publikoetako zenbait bezerok eskatzen dute euren ordutegi-kontsumoak Temetra plataformaren bidez ikusteko, eta, beraz, eskatzen da bereziki kontagailu aurreratu horiek hornitzeko kontratazio-espedientea hasteko. Kontagailu horiek instalatzeko ardura Udal Sareen Zuzendariordetzarena izango da aurrerantzean ere.

3.- Lotetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez

Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa: Kontratua lotetan banatzea ez da bidezkoa, 50 mm-ko diametro izendatukoak edo handiagoak diren kontagailu estatikoak erosteak metrologia- eta komunikazio-betekizunak aldi berean betetzen dituen soluzio bakar eta koherentea bermatu behar duelako; izan ere, ekipo horiek gorabeherarik gabe integratu behar dira Itelazpiren LoRa sarean eta Partzuergoak erabilitako Temetra softwarean, eta, gainera, stock nahikoa ziurtatu behar dute Udal Sareen Zuzendariordetzak kasu askotan obrak behar dituzten instalazioak egin ahal izateko; kalibreengatik edo beste irizpide batzuegatiko kontratazioa zatikatzeak konplexutasun gehigarria baino ez luke sartuko soluzio teknikoan, adjudikaziodunetako batek zehaztapenak behar bezala ez betetzeko arriskua handituko luke, eta ez luke inolako onura operazionalik, ekonomikorik edo antolamenduzkorik ekarriko.



B.- KONTRATUAREN XEDEA

4.- CPV:

CPV kodea: 38421100

Deskribapena: Ur-kontagailuak

5.-Aldagaiak edo alternatibak onartzea:

☐ BAI

☒ EZ

6.- Izaera juridikoa

☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.-KONTRATUAREN PREZIOA

1.-Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)

**EHUN ETA HAMALAU MILA ETA BOSTEHUN
(114.500 €) EURO**

2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAICA MILA ETA BEDERATZIEHUN (251.900 €) EURO

Loteak:

☐ BAI

☒ EZ

3.-Prezioa zehazteko sistema:

☐ Oroharreko prezioa

☒ Aleko prezioak

4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-esleipena:

Kontratuaren urteko aurrekontuak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa hauek dira:

2026. urtea – 92501 2279 partida -- 85.875 € (BEZik gabe)

2027. urtea-- 92501 2279 partida -- 28.625 € (BEZik gabe)

5.-Prezioak berrikustea:

☐ BAI

☒ EZ

6.-Kanpoko funtsekin finantzatzea:

☐ BAI ☒ EZ

7.- Ordaintzeko modua: Hileko ziurtagiriak.

8.- Ordainketak kontura: Ez da behar.

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.-Iraupen osoa: URTE (1) BAT

2.- Epe partzialak.

☐ BAI ☒ EZ

3.- Luzapena

☒ BAI ☐ EZ

URTE (1) BAT



D.- KONTRATUAREN EPEA

4.- Berme-epea: URTE BAT (1) kontagailu BAKOITZA hornitzen denetik

5.- Kontratua gauzatzeko tokia: BBUPren instalazioak, hau da, kontagailuak hornitu direnean eta BBUPk izenda dezakeen biltegian jasota daudenean, bere jarduera-eremu geografikoan. Hornitzeko eskaeran beste biltegiren bat zehazten ez bada, entregak Arrigorriagako Atxukarro industrialdeko 7. zenbakian (PK: 48480) egingo dira.

6.- Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

☒ Behin betiko bermea: % 5 Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria: Zenbatekoa:

F.-KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena: amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokio, eta kontratuaren urteko lizitazio-tasa halako bat izan beharko da gutxienez.

G.- KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Kaudimen teknika egiaztatzeko, izaera bereko edo antzeko hornidurak egin izana egiaztatzen duten ziurtagiriak edo agiriak aurkeztu beharko dira. Azken hiru urteetako ekitaldi ekonomikoren batean 50 mm-ko diametro izendatukoak edo handiagoak diren kontagailuak (84 baino gehiago) hornitu izana egiaztatu beharko da (lizitazio honetan aintzat hartutako 120 kontagailuen % 70).

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknika:

Kaudimenean eskatzen den esperientzia ez da kontuan hartuko kasu horietarako. Bai, ordea, gainerako eskakizunak.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, hautazkoa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen arabera irizpideen dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentazioa.



BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

- Eskaintza baloratzeko beharrezkoa dena, balio-judizioaren mende dauden irizpideei dagokienez; balorazio hori bereizita sartu beharko da, kaudimena dagoela egiaztatu ondoren balorazio hori egin ahal izateko.

Irizpide teknikoak baloratzeko dokumentazioa bereizita identifikatu beharko da, eta ezingo da hogeit hamar orrialde baino gehiagokoa izan, beharrezkotzat jotzen diren produktuaren katalogo guztiak barne.

Aipatutako lehenengo hogeit hamar orrialdeen ondorengo orrialdeen edukia ez da kontuan hartuko eskaintzaren balorazioan.

- Eskaintako kontagailuetako eta irati-moduluetako datuak behar bezala desenkriptatzeko eta interpretatzeko beharrezko informazioa bidaltzeko konpromisoa hartzen duen adierazpena, bai eta kontagailu eta komunikazio-sistema bakoitzerako bakarrak izango diren *key*-ak emateko konpromisoa ere; BBUPri aukera emango dio egokitzen jotzen duen tresna erabiltzeko, bai norberarena, bai hirugarrenena, *walk/Dive by* eta sare finkoan datuak irakurtzeko, desenkriptatzeko eta interpretatzeko.

Gainera, eskaintzarekin batera, Ur Partzuergoak erabiltzen dituen tresnetan hornitu beharreko kontagailuek behar bezala funtzionatzen dutela bermatzeko beharrezkoa den dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- **Itrón Spain SLUK emandako ziurtagiria**, kontagailuan eta eskaintako komunikazio-moduluan erregistratzen den informazioa Temetra plataforman ikus daitekeela adierazten duena. Temetra plataforma Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarentzat Espainian eskuragarri dago, eta ez du inolako garapen informatikorik egin behar, ezta horretarako lizentziarik lortzeko kudeaketarik ere.

Ziurtagiri horren orde, erantzukizunpeko adierazpena egin daiteke, baina kontratua adjudikatzeko, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak egiaztapenak eta frogatzeak egin ahal izango ditu lehen sailkatuaren dokumentazioa aurkezteko epean.

ESKAINZA BAZTERTZEKO HUTSEGITE TEKNIKOAK

Itrón Spain SLUK emandako ziurtagiria ez aurkeztea. Ziurtagiri horrek adierazten du kontagailuan eta eskaintako komunikazio-moduluan erregistratzen den informazioa Temetra plataforman ikus daitekeela. Temetra plataforma Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarentzat Espainian eskuragarri dago, eta ez du inolako garapen informatikorik egin behar, ezta horretarako lizentziarik lortzeko kudeaketarik ere.



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailerak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da **I. eranskin**eko ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa izan ezik.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

a) Unitate-prezioen zerrenda

Honela definituko da lizitatzailerak bakoitzak eskaintako prezioa, zeina bere eskaintza ekonomikoa baloratzeko oinarritzat hartuko baita: eskaintako unitate-prezioak (taulan gehieneko unitate P gisa ezarritakoak edo txikiagoak) «zenbatetsitako unitateak» zutabean zenbatetsitako unitate-kopuruari aplikatuta, eta, ondorioz, «lizitazioaren gehieneko tasa» 114,500 euro gehi BEZa ezarrita.

Eman beharreko kontagailu-unitate edo irrati-modulu kopurua gutxi gorabeherakoa da, eta eskaintza ekonomiko onuragarriena zehazteko erabiliko da. Kontratua adjudikatu ondoren, adjudikaziodunak ezin izango dio inolako erreklamaziorik egin BBUPri diametro izendatu bakoitzeko kontagailu gehiago edo gutxiago eskatuz gero, eta horiek eskaintako unitate-prezioetan hornitzera behartuta egongo da, betiere SPKLn ezarritako mugen arabera.

DN (mm)	Unidades estimadas	Precio máx. Unitario	Tipo Máximo	Precio venta unitario	precio ofertado
DN50	70	850,00 €	59.500,00 €	Precio DN50	70 * Precio DN50
DN65	25	950,00 €	23.750,00 €	Precio DN65	25 * Precio DN65
DN80	6	1.050,00 €	6.300,00 €	Precio DN80	6 * Precio DN80
DN100	15	1.250,00 €	18.750,00 €	Precio DN100	15 * Precio DN100
DN125	2	1.500,00 €	3.000,00 €	Precio DN125	2 * Precio DN125
DN150	2	1.600,00 €	3.200,00 €	Precio DN150	2 * Precio DN150
			114.500,00 €	precio contrato	

I.- ESKAINTZAK EGITEKO LEKUA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaileraren profilean adierazitakoa
- 2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik administrazio-baldintza berezien pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):
- 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ
Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Presidenteak:
Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Mahaikideak:
Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.
Xabier Orue Moro jauna.
Itziar Zarate Urrutia andrea.
Gerardo Latorre Pedret jauna.



J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Hauek dira baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak:

AUTOMATIKOKI ZENBATZEN DIREN IRIZPIDEAK 50 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez 50 puntu lor daitezke.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BM) / 2	48 puntu
BM	47 puntu
0,8 x BM	46 puntu
0,6 x BM	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Argibideak:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.
- BM: Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzailer bakoitzaren baja-ehunekoen batez besteko aritmetikoaren emaitza.

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuen banaketa.

Modu horretan, Bi bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honi dagokiona da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BM$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BM < Bi \leq 0,8 \times BM$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BM)}{0,2 \times BM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BM < Bi \leq BM$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BM)}{0,2 \times BM}$$



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Baldin eta $BM < Bi \leq (BM + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BM)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

Baldin eta $(BM + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BM - Bmax)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEAK 50 PUNTU

Kontagailuen ezaugarri teknikoak eta metrologikoak

Kontagailuen aniztasuna, neurriei dagokienez -----**15 puntu**

Ezarritako baldintza teknikoak hobetzea (materialak, zehaztasun metrologikoa eta R ratioa, abiarazte-emaria, bateriak hamabi urte baino gehiago irautea, onar daitekeen gehieneko presioa, presio- edo kargagalera, neurtzeko erabil daitekeen tenperatura, etab.) -----**15 puntu**

Adjudikaziodunak behar izanez gero eman ditzakeen beste kontagailuen aniztasuna (50 mm-ko diametro izendatukoak edo handiagoak) -----
-----**10 puntu**

Irakurketak beste moduan lortzeko erraztasuna (irradi-modulua muntatzea eta aurkibidea eta kontagailuaren zein moduluaren erreferentziak bistaratzea; Lora sare finkoa erabiltzearen eta ibilbidean irakurtzearen eta konfiguratzaren artean txandakatzea, etab.) -----
-----**10 puntu**

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizarteratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.
- b) Enpresa bakoitzaren plantillako aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena.
- c) Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Ohi baino baxuagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat ohi baino baxuagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzailerak bakarrik dagoenean eta lizitazioaren oinarriko aurrekontua baino 25 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Bi lizitatzailerak izanik, beste eskaintzaren aldean % 20 baino txikiagoa denean.
- Hiru lizitatzailerak izanik, egindako eskaintzen batez besteko aritmetikoaren aldean % 10 baino txikiagoak direnean. Hala eta guztiz ere, batez bestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batez bestekoa kontuan hartuta % 10 baino handiagoa bada, eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurriz kanpokotzat joko da % 25 unitatetik gorako beherapena.

- Lau lizitatzaille edo gehiago daudenean aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoa direnean. Dena den, horien artean batez bestekoa % 10 unitatetan baino gehiagotan gainditzen duten eskaintzak badaude, batezbesteko bat kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarra izango da ausarkeria-atalase berri bat ezartzea, eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatu da.

Talde bereko enpresen eskaintzak aurkezten badira, baxuegiak izateagatik susmagarriak diren eskaintzak identifikatzeko araubidean, bakar-bakarrik hartuko da kontuan eskaintzarik baxuena, eskaintza banaka edo taldekoak ez diren, baina aldi baterako elkarte gisa jarduten duten beste enpresa edo enpresekin batera aurkeztea gorabehera.

4.- Lizitatzailleak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezkoa den gutxieneko atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan 25 puntu gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak.

M.- ZIGOR ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

SPKLren 301. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, hornitu beharreko unitate-kopurua kontratuaren prezioaren % 10era arte (205.2.c) 3. artikuluan aipatzen den arabera) handitu ahal izango da, dagokion aldaketa-espeditatea izapidetu beharrik gabe.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

- ☒ Hasierako ekarpenaren betebeharra
☐ Azpikontratazioaren mugak

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

- ☒ BAI
☐ EZ



KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

Adjudikaziodunak kontratua bete beharko du, eta Partzuergoak egiten duen eskaera bakoitza hornitu beharko du, **gehienez ere hamabost egun naturaleko epean**, kontratua egiten denetik zenbatzen hasita.

Era berean, berme-epeak bere gain hartutako kontagailuen funtzionamendua okerra bada eta ordezkatu egin behar badira, horien hornidura bermatu beharko du adjudikaziodunak. Kontagailuaren funtzionamendu metrologiko egokia eta bertan integratutako komunikazio-ekipoa kontuan hartuta.

Betebehar hori funtsezko kontratu-betebehartzat hartzen da, eta, beraz, **betebehar** hori ez betetzeak emandako bermeak edo abalak betearaztea ekar dezake, Ur Partzuergoaren irizpide eskusiboaren arabera egoera hori justifikatzea ahalbidetzen duen arrazoi nahikoa dagoenean izan ezik.

Kontratistaren ordezkaria

Enpresak BBUPrekiko solaskidea izendatu beharko du. Hala, hornitutako kontagailuetatik etor daitezkeen arazoak edo kontagailuen funtzionamendu txarra konpontze aldera, solaskideak eguneroko harremana izango du Bezeroekiko Harremanen Sailarekin.